

EUSKEREA. Eremu urriko hizkuntzen ganean antolatu diran ekitaldieetara deitu dau

Lea-Artibai Euskarari alkarteak normalizazinoa jarri dau helbururako

«Eskualde euskalduna izan arren, oraindino gauza asko dagoz egiteko», dinoe

Lore Bengoetxea |

Gaur hizkuntzen eguna ospatzen da European. Euskal Herrian euskerearen normalizazinoa aldarrikatuko da. Lea-Artibai Euskarari alkarteak eskualdean zapatuan antolatutako ekitaldietan parte-hartzera deitu dau. Ekimenak EHEk prestatu ditu.

«Eremu urriko hizkuntzak normalizazino bidean jarri behar dira. Euskerea da euretako bat. Gaurko egunak urratsak emoten joateko balio behar dau; indarrak batu eta konpromisoak hartzeko garaia da», esan dau Aitziber Pagaegi Lea-Artibai euskarari alkarteko kideak. Prentsaurrekoa emon dabe Lea-Artibain antolatu diran ekitaldietan parte-hartzera deitzeko. «Eskualde euskalduna izan arren, oraindino gauza asko dagoz egiteko», dinoe alkartekoek.

Hiru zutabeak, bat eginda

Euskerearen plan estrategikoa gauzatu nahi dabe eskualdean. Jarraipen batzordean gizarte eragileak, udalak eta euskalgingtzea ordezkatuta dagoz.

Arlo bakotzeko ordezkariek datozan egunetako ekimenen garrantzia azpimarratu dabe.



NEKANE AKARREGI
Alkarteko kideek jentearrean be aurkeztu gura izan dabe euren egitasmoa.

«Euskerea normalizazinora eroatea danon zeregina da», adierazo dau Asun Gandiaga gizarte eragileen ordezkariek.

Udalen izenean, Joseba Andoni Zuazok «instituzioek euki behar daben garrantzia» azpimarratu dau, eta Josu Etxaburuk euskalgintzearen izenean egin dau berba. «Zoriontzekoa da hiru zutabeek bat egitea, gizarte osoaren parte-hartzea beharrezkoa dalako eremu urriko hizkuntza bat normalizazinora eroateko», dino Etxaburuk.

Alkarteak Lea-Artibaik zabaldu bidea jarraitza gonbidatu ditu beste eskualdeak.

IRAILAK 29, EUSKEREAREN EGUNA

BERRIATUA

19:15ean: Manifestazino zaratsatsua.

LEKEITIO

11:00etan: Umeentzako jolasak.
11:00etatik 13:00etara: Arrakala irratiaaren emonaldi berezia Eskolapetik.
12:00etan: Parodia, Eskolapean.
13:00etan: Txarangea.
20:00etan: Kontzentrazinoa, Eskolapean.

ONDARROA

Goizean: Herriko lora eta zuhaitzen izenak euskeraz ipiniko ditue.
12:00etan: Bolanderak botako ditue. Horren

ondoren, hankapaluek urtengo dabe. Alamedan, taloak eskainiko ditue. Txosna be ipiniko dabe.

12:30ean: Bertsolariak, txalapartariak eta Unanue Kamara Korallaren emonaldia.
13:00etan: Triki-berto poteoa.
14:30ean: Herri bazkaria, frontoian.
17:00etan: Umeentzako jolasak, plaza musikan.
19:00etan: Dinbaleroak, kalerik-kale.
20:00etan: Euskerearen aldeko manifestazinoa, dinbaleroekin.
23:00etan: Kontzertua frontoian, Zea Mays, Baneteuanba eta Ken-7 taldeekin. Tartean, kale antzerkia egongo da.

MARKINA-XEMEIN

Udalak berzikletako ontziak emongo ditu etxeetan ipinteko

L.B. |

Markina-Xemeingo Udalak berzikletako ontziak jarriko ditu, laster, danen eskura. Ekimena Ingurugiro arloak bultzatu dau.

Udalak orri bat atera dau, berziklaketea errezteko hartuko diran neurrien barri emoteko. Ingurumen arloko ardura-dun Maite Txurrukak aurkeztu dau kanpaina barria. «Gure etxeetako zatarrak berzikletan hamar urte baino gehiago badaroaguz be, eta ingurumeneko kutsadurea gixtitztea lortu arren, oraindino behar astuna dauka egiteko», esan dau.

Zer irabazia

Berzikletearen alde onak azpimarratu ditu. «Etxeetan zatarrak banatu eta bakotxa bere ontzian jarri hutsak, gizarteko produktzio sistemako makinariaren parte handi bat ipinten dau martxan, lanpostuak sortzen ditu, eta lehengaien berzikletearen bitartez garapen eusgarria bultzatzen dau», gogoratu dau Txurrukak.

Bide horri jarraituta, Ingurumen batzordeak etxeetarako berziklatze ontziak jarriko ditu danen eskura, doan. Ontzi horreek erabilteko argibideak emongo ditu. Beste alde batetik, berziklatze ontzia eta edukinontzi horia ondo erabilteko arauak azalduko ditu.

LAGURAEAN

LEKEITIO

Gazte informazino bulegoak bideo ikastaroa antolatu dau urritik abendura

Lekeitioko Gazte Informazino bulegoak hiru hilabeteko bideo ikastaroa prestatu dau. Urrik abendura emongo ditue eskolak, astean egun bitan, egunean ordu bi. Ikasgaiak honeek dira: kamarearen erabilera, gidoi bat zelan egin eta montaia. Eskolak Lekeitioko herri eskolan emongo ditue. Izena urriaren 3rako emon behar da, Gazte Informazino bulegoan. Matrikulea 1.000 pezetakoa da.

ONDARROA

Igeri taldeak izena emoteko epea zabaldu dau, 9 urte arteko umeentzako

Ondarroako Igeri Taldeak jakitera emon daue, zabalik dago izena emoteko epea. Kirolde-

giko igerilekura jo behar da, arratsaldeetan, hila-ren 28rako. Zazpitik bederatzi urtera artekoei dei berezia egin deusiee. Entrenatzaileak bakotxaren maila ikusi, eta taldeka ipiniko ditu.

Udalak bederatzi behargin hartuko ditu errolda barritzeko

Urrian errolda barritzen hasiko dira. Hori dala eta, Udalak bederatzi agente zentsal hartuko ditu. Informazinoa eta izen-emotea hilaren 28ra arte dago zabalik.

Anbulategian igogailua ipinteko beharrekin hasiko dira laster

Osakidetzak igogailua ipiniko dau Ondarroako ambulategian. Egiturak zortzi pertsona igoteko ahalmena eukiko dau (600 kilo). Beharren aurrekontua bederatzi milioi pezetakoa da.

AGENDEA

AMOROTO

Meteorologiaren ganeko berbaldia: Amotoko Herriko Kulturaren batzordeak antolatuta, berbaldia izango da, gaur, arratsaldeko 17:30ean. Gaia, hauxe: *Meteorologia, lehen eta orain. Herri jakituria eta zientzia, bat eginda.* Pello Zabala meteorologo eta Euskal Herriko Klimatologia eta Meteorologia fundazinoak parte hartuko dau.

LEKEITIO

Etxebilaren buzoiak: Etxebizitzaren arazoaren ganeko kezka ezagutzeko, Etxebila taldeak inkestak banatu ditu, etxerik-etxe. Bete eta herrian ipinitako buzoietan itxi behar dira. Buzoiak, kiroldegian, liburutegian, Kontsumo bulegoan eta udaletxean dagoz.

ONDARROA

Aurrera Mendi Taldearen ekimenak:

Ondarroako Aurrera Mendi Taldeak orientazino ikastaroa antolatu dau, bihar arte, arratsaldeko 19:30ean Kultur Etxean. Hilaren 30ean urteera praktikoa egingo dabe mendira.

Euskerearen eguna: Zapatuan euskerearen eguna ospatuko da. Gaueko 23:00etan kontzertua egongo da. Sarrerak Zurrumurru dendan dagoz, 800 pezetan.

Erakusketea: Mugarik Gabeko Medikak erakundeak bere beharraren ganeko argazkiak jarri ditu Udalaran Erakusketa Aretoan.

Azken Agurra lehiaketea: Bolo-Bolo aldizkariak III. testamentu gutun lehiaketea antolatu dau. Beharrak urriaren 12rako emon behar dira. E-mailez bidali ahal dira (bolobolo@euskalnet.net) edo Udaleko Euskera zerbitzuan emon.